

146. FITXA 2025erako mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa (MOVES III programa)

Nori zuzendua: Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak, besteak beste.

Sarbide-esteka: [EEE - MOVES III, 2025 laguntza-programa - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [EBAZPENA, 2025eko ekainaren 2koa, Energiaren Euskal Erakundeko \(EEE\) zuzendari nagusiarena, 2025erako mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituena \(Moves III Programa\), eta Moves III deialdian 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera erregistratutako laguntza-eskaerak Moves III-2025 deialdira lekualdatzea erabakitzen duena](#)

Eremuak: Mugikortasun elektrikoa

Zenbatekoa: 14.982.453 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/06/25etik 2025/12/31ra

Laburpena

Deialdi honen helburua ibilgailu elektrikoen erosketa sustatzea eta kargatze-azpiegiturak zabaltzen laguntzea da. **Mugikortasun elektrikoa sustatzera** zuzendutako laguntza programa da eta helburuak erabat lerrokatuta daude Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin, hau da, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutakoekin.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. pizgarri-programa: Ibilgailu elektriko «entxufagarrien» eta erregai-pila bidezkoen erosketa.

Jarduketa diruz lagungarria izango da laguntzaren eskatzailearen izenean Espainian lehen aldiz matrikulatutako **ibilgailu berriak zuzenean erostea edo leasing finantzarioko finantzaketa-eragiketen edo «renting» bidezko errentamenduaren bidez eskuratzea** (leasing operatiboa), ibilgailua «renting» enpresaren izenean matrikulatuta egoteko aukera izango den «renting» kasuetan salbu.

Laguntzak jaso ditzaketen ibilgailuek honako kategoria hauetako batekoak izan beharko dute:

- M1 turismoak:** Gutxienez lau gurpileko ibilgailu motordunak, bidaiariak garraiatzeko diseinatuak eta fabrikatuak, gidariaren eserlekuaz gain, gehienez zortzi plaza dauzkatena.

- b) **N1 kamioi arinak edo furgonetak:** Ibilgailu motordunak, nagusiki salgaiak garraiatzeko sortu eta fabrikatu direnak, eta, teknikoki onargarria den gehieneko masa gisa, gehienez ere, 3,5 tona dutenak.
- c) **L6e kuatriziklo arinak:** Gehienez 350 kg-ko tara duten kuatriziklo arinak, baterien masa alde batera utzita, eraikuntzaren arabera, gehienez ere ordu bakoitzeko 45 km-ko abiadura, eta, gehienez ere, 4 kW-ko potentzia dutenak.
- d) **L7e kuatriziklo astunak:** Lau gurpileko ibilgailuak, gehienez ere 450 kg-ko abiada-masa dutenak (baterien pisua alde batera utzita) bidaiarien garraiorako, eta 600 kg-koa salgaien garraiorako, eta kuatriziklo arin gisa sailkatu ezin daitezkeenak.
- e) **L3e, L4e, L5e motozikletak:** Bi gurpileko ibilgailuak edo ibilgailuko luzetarako erdiko ardatzarekiko hiru gurpil simetriko edo asimetriko dauzkatena, 50 cm³-tik gorakoak edo ordu bakoitzeko 50 km-tik gorako abiadura har dezaketenak, eta ibilgailuko pisu gordin gisa, gehienez ere, tona bat dutenak.

2. pizgarri-programa: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea

Kargatze-azpiegiturak honako **erabilera** hauek izan ditzake:

- a) Erabilera pribatua bizitegi-sektorean, familia bakarreko etxebizitzak barne.
- b) Erabilera publikoa bizitegi-sektoretik kanpo (aparkaleku publikoak, hotelak, merkataritza-guneak, unibertsitateak, ospitaleak, industrialdeak, kiroldegia, etab.).
- c) Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoetako aparkalekuetan, beren ibilgailuei zerbitzua emateko.
- d) Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoetako aparkalekuetan, beren langile eta bezeroei zerbitzua emateko.
- e) Erabilera publikoa bide publikoan, eta hiriko eta hiriarteko bide-ardatzetan.
- f) Erabilera publikoa errepide-sarean, bereziki, gasolina-zerbitzuguneen azpiegituran.

Gastuetarako aldi hautagarria

Toki-erakundeek kasuan, inbertsioa **2025eko urtarrilaren 1etik aurrera** hasi duten jarduketak lagundu ahal izango dira diruz.

Gastuetarako aldi hautagarriak gehienez ere **12 hilabeteko** epea izango du, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, eta, gehienez ere **2026eko abenduaren 31ra arte**.

Intereseko beste alderdi batzuk

2025eko urtarrilaren 1etik 23ra bitartean aurkeztutako laguntza eskaerak joko dira baliozkotzat.